

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresaren funtsezko baliabideak hiru taldetan sailkatuko ditugu: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak eta finantza-baliabideak.

Alde batetik, ditugun baliabide fisikoak hurrengo hauek dira: Getariako bulegoa, gure bezeroak mugitzeko autobusak eta kirol desberdinak egiteko behar den materiala (surfeko tablak, bizikletak, belak, piruagak, parapenteak...).

Beste aldetik, baliabide intelektualak eta giza baliabideak ditugu. Moltzo honetan, Marinaren webgunea sortzeko trebetasuna, Leireren ideia originalak eta Nerearen negoziatzeko ahalmena sartzen dira. Baita ere gure bezeroekin beraien hizkuntzan jarduteko eta harremantzeko ahalmena.

Azkenik, finantza-baliabideak ditugu. Diru Iturrien atalean jarri dugun bezela, gu hiruon artean jarritako kapital soziala 9.000 €-koa da. Hala ere, argi dago gure enpresaren diru sarrera nagusia berezori eskaintzen dizkiegun ekintza eta txangoetan lortutako dirua dela.